

EGONEZINEZ

Ez dakizu zergatik baina egonezinez esnatu zara iratzargailuak horretarako programatuta zenuen ordua baino dezente lehenago. Kalera atera zara paseatzea izan daitekeelakoan egonezina baretzeko modurik onena. Tren estazio ondotik pasa ondoren Sanesteban kalea igo eta kaxkoa zeharkatu duzu. Txara gainera iritsi, Troiako aldapa jaitsi eta Zubietara doan bidean barna zoazela errepidean geldirik dauden autoen motor hotsa entzun duzu. Goizeko zortzi eta erdiak jo dute Santueneara doan bidea hartu berritan. Egonezina sortzen dizun barne zarataren hotsa isildu ez bada ere, baretu dela ohartu zara.













